



Arartekoaren 2015R-337-15 Ebazpena, 2015eko abuztuaren 17koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta bat (DBE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarri (EPO) bat jasotzeko eskubidearen etetea berrikustea gomendatzen zaio.

Aurrekariak

Otsailaren 19an (...)k Arartekora joan zen Lanbideren ebazpen batengatik kexa egiteko. Zehazki, erreklamatzailak jakinarazi zigun Lanbidek 2014ko azaroaren 24an emandako ebazpen baten bidez DBE (eta dagokion EPO) bat jasotzeko eskubidea eten ziola.

Lanbidek, erreklamatzailari bidalitako ebazpenaren idazkian adierazi zuen moduan, DSBE etetea erabaki zuen, arrazoi honengatik: *“Lanbiden eskatzaile gisa inskribatuta egotetik salbuetsita ez dagoen/dauden bizikidetz-unitateko kide bat edo gehiago Lanbide eskatzaile gisa inskribatuta ez egotea.”*

Erreklamatzailak jakinarazi zigun moduan bere semeari eten zioten, eta lanean dago. Hain zuzen lanean zegoenez, enplegu-eskaera ez zuela indarrean mantendu behar uste zuen, eta arrazoi horregatik eten zion Lanbidek.

Hori azaldu zuen erreklamatzailak 2014ko abenduaren 9an Lanbideri bidalitako idazki batean, aipatutako arrazoiarengatik etete-prozedura bat hasiko zutela adierazi zioten jakinarazpenari emandako erantzunean. Alegazioekin batera, bere semearen azaroaren 14ko DARDE (enplegu-eskaera berritzeko agiria) agiriaren kopia bat ere aurkeztu zuen.

Betebehar horrekin erreklamatzailari bidalitako informazioarekin arazoren bat egon litekeela uste genuenez, gomendio honen gogoetetan aipatzen dugunari buruz, martxoaren 11n idazki bat bidali genion Lanbiderik. Idazki horretan, erreklamatzailaren DBEren etetea berrikus zezakeen eskatu genion, horretarako arrazoirik ez zegoela uste genuelako.

Erantzunik ez genuenez jaso, apirilaren 23an errekerimendua bidali genion Lanbideri, euskal herri-administrazioek Arartekoaren informazio-eskaerei epe barruan nahitaez erantzun behar zietela gogorarazteko.

Ekainaren 8an erantzuna jaso dugu.





Horrela, Lanbidek jakinarazi du aipatutako arrazoiarengatik eten ziola DBE, erakunde autonomiadun horren ustez, bere enplegu-eskaera indarrean mantentzetik salbuetsita ez dauden pertsona guztiek etengabe berritu behar dutelako, nahiz eta lanean alta-egoeran egon.

Horrez gain, erantzuna emateko idazkia idatzi zuen egunean etenda jarraitzen zuela adierazi zuen (martxoaren 30ean), erreklamatzailak berriro hastea ez zuelako eskatu.

Gogoetak

1. 18/2008 Legearen 19. artikulua DBE baten titularren betebeharrei buruzkoa da. Hiru paragrafotan banatuta dago, eta bigarrenean, enplegu-eskaera indarrean mantentzeko beharra aipatzen da. Horrela, 18/2008 Legearen 19.2b). artikulua haxe ezartzen du: *"Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren titularrek, 1. paragrafoan jasotakoez gain, beste betebeharrak ere izango dituzte: (...) Titularra eta lan egiteko adina duten haren bizikidetzaren unitateko kideak lanerako prest egotea"*. Lanerako prest egote hori adierazteko, enplegu-eskaera (DARDE) indarrean mantendu behar dute.

Erreklamatzailak, dagoeneko adierazi denez, bere semea langabezia-egoeran ez zegoenez, enplegu-eskaera ez zuela berritu behar uste zuen.

Hori horrela, gure informazio-eskaeraren bidez Lanbideri adierazi genion betebeharrak hori eska badezakeen arren, baita langabezia-egoeran bagaude ere, enplegu hobia lortzeko aukera izan dezagun, egia dela ez dela oro har legez eska daitekeen betebeharrak, betebeharrak hori jasotzen duen arauak, aipatutako 18/2008 Legearen 19.2b). artikulua, gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentako modalitatean DBE bat duten titularrak bakarrik jasotzen dituelako, ez laneko diru-sarrerak osatzeko errentakoak. Eta hori da, hain zuzen, erreklamatzailaren DBEren modalitatea.

Erakunde honen ustez, aipatutako 18/2008 Legearen 19.2. artikulua adierazten duen enplegu-eskaera indarrean mantentzeko betebeharrak *"gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren titularrek"* bakarrik dute, hau da, langabezia-egoeran daudenek eta horren ondorioz DBE osorik jasotzen dutenek, eta ez kasu honetan bezala, DBE laneko diru-sarrerak osatzeko errenta gisa jasotzen dutenek. Izan ere, kasu horretan, 18/2008 Legearen 19.3. artikulua berriaz ezartzen duena aplikatuko zaie, hau da: *"Laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren titularrek, 1. paragrafoan aurreikusitakoez gain, beste betebeharrak ere izango dute: enplegua hobetzeko gizarteratze-hitzarmena negoziatzea,*



sinatzea eta betetzea, lege honen III. tituluko I. kapituluan aurreikusitako moduan. Ondorioz, ezin izango dute borondatezko bazarik hartu enpleguan, ez behin betikorik ez aldi baterakorik, ez eta lan-eszedentziaz baliatu ere, justifikatutako arrazoi larririk ez badago".

2. Horrela, 18/2008 Legearen 19.1. artikulua DBE baten titular guztiek oro har dituzten betebeharrei buruzkoa da; 19.2. artikulua DBE gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta gisa jasotzen duten pertsonen betebeharrei buruzkoa, eta 19.3. artikulua, DBE laneko diru-sarrerak osatzeko errenta gisa jasotzen dituzten titularren berariazko betebeharrei buruzkoa.

Beraz, ez dugu uste erreklamatzaillearen semeak DBE arautzen duen arautegian jasotzen diren betebeharrak betetzen ez dituenik, 18/2008 Legearen 19. artikulua arabera, DBE gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta moduan jasotzen duten titularrek bakarrik izan behar dutelako enplegu-eskaera aktibo.

Antzeko edukia zuten beste kexa batzuetan Lanbideri adierazi diogunez⁽, gure ustez, ulergarria da bizikidetzaren unitate bat osatzen duten pertsona guztiei enplegu-eskaera aktibo izan dezatela eskatzea, nahiz eta lanean egon, horrela beraien lan-baldintzak hobetu ahal izateko, betiere betebeharrak horretatik berariaz salbuetsita ez badaude (18/2008 Legearen 19.2b). artikulua berak ezartzen dituen salbuesteko arrazoiak). Horrez gain, gure ustez, betebeharrak hori argi eta garbi adierazi behar du, izan ere, prestazioa arautzen duen arautegiak betebeharrak orokortzat ez hartzeaz gain, normala da lana duen norbaitek enplegua ez duela eskatu behar pentsatzea.

Aipatutako laneko diru-sarrerak osatzeko DBEri buruzko 18(2008 Legearen 19.3. artikulua, berariazko betebeharrak hau bakarrik ezartzen du: "*enplegua hobetzeko gizarteratze-hitzarmena negoziatzea, sinatzea eta betetzea*". Hitzarmen hori esparrurik egokiena izango litzateke enplegu-eskaera aktibo mantentzeko betebeharrak ezartzeko.

Idatzitako 19.3. artikuluaekin batera, 18/2008 Legearen 65. artikulua gizarteratze-hitzarmenaren definizioa, izaera eta helburuari buruzkoa da. Edukiari dagokionez, 65.3. artikulua haxe ezartzen du: "*Gizarteratze aktiborako hitzarmenek lanpostu bat lortu ahal izatera edo lan-egoera hobetu ahal izatera bideratutako egintzak jasoko dituzte, erregelamenduz ezarritakoaren arabera;*

* Adibide moduan, 1754/2013/QC edo 120/2014/QC espedientei dagozkien gomendioak.



egintza horiek, bereziki, prestakuntza aurrekoak, prestakuntzakoak, lana topatzekoak eta lan-bitartekaritzakoak izango dira".

Horren ondorioz, Lanbidek egokitzat jo bazuen erreklamatzaillearen semeak bere enplegu-eskaera aktibo mantentzea, bi alderdien artean adostu beharko litzateke betebeharrak hori, gizarteratze-hitzarmenaren barruan (18/2008 Legearen 5. eta 7. artikulua).

Lanbidek ez du proposatu inolako gizarteratze-hitzarmenik adostea. Horiek arautzen dituen arautegia ez dela garatu alde batera utzita, nahiz eta denbora luzea igaro, 18/2008 Legean eta 147/2010 Dekretuan ezartzen den funtsezko tresna da. Hala ere, gizarteratze-hitzarmen hori sina zitekeen eta enplegu-eskaeran alta-egoeran mantentzeko betebeharrak ezarri. Hala eta guztiz ere, Lanbide, arautegian ezartzen ez diren betebeharrak betetzea eskatzen ari da.

3. Bestalde, garrantzitsua da 147/2010 Dekretuaren 43.2d). eta 45.2. artikulua gogoraraztea, izan ere, berriazko araubidea ezartzen dute 43.2d). artikuluan aipatzen den arrazoiarengatik egiten den etetearen iraupenari dagokionez, hots, *"enplegurako prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa etengabe izena emanda ez egotea edota enplegu egoki bati uko egitea 12.2.b) artikulua enplegu egokia definitzen duen terminoetan".* Horrela, 45.2. artikulua hau ezartzen du: *"43. artikulua 2. paragrafoa a), d) eta e) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, etendura hilabetekoa izango da lehen aldiz gertatzen denean eta 3 hilabetekoa ondoren berriro gertatzen bada, behin gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua egin behar duten Oinarriko Gizarte Zerbitzuek egiaztatzen dutenean, hala dagokionean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatuz, Gizarteratze Hitzarmenean itundutakoa ez dela betetzen".*

Aurretik adierazi dugunez, semeak azaroaren 14an enplegu-eskatzaile moduan alta emanda, erreklamatzailleak DARDE entregatu zuen Lanbiden 2014ko abenduan. Beraz, eteteko arrazoiaren bat egongo balitz ere (gure ustez ez da egon arrazoirik), neurri hori arautegiak ezartzen duena baino denbora gehiago luzatzen ari da.

Bestalde, 147/2010 Dekretuaren 46. artikulua aplikatuz, DBE jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak ahulduta, prestazioa jasotzeko eskubidea ofizioz berrezarri beharko luke.

Arartekoaren ustez, Lanbidek arautegian berriaz aipatuta ez dagoen arrazoi batengatik eten zion erreklamatzailleari DBE, enplegu-eskatzaile moduan alta-





egoeran egon beharreko betebeharra gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta jasotzen duten eta langabezia-egoeran dauden pertsoneri bakarrik eskatu ahal zaielako, ez kasu honetan bezala, laneko diru-sarrerak osatzeko errenta jasotzen dutenei. (18/2008 Legearen 19.1. eta 19.3. artikulua).

Horrez gain, Lanbideren ebazpenean jasotzen den betebeharra ez dela bete ulertu arren, ez da kontuan hartu betebeharrak hori arautzen duen arautegiak arrazoi horrengatik egiten diren eteteen iraupenari dagokionez ezartzen duena, hori, 147/2010 Dekretuaren 45.2. artikuluan jasotzen baita.

Gomendioa

18/2008 Legearen 19. artikulua 1. eta 3. paragrafoak kontuan hartuz, erreklamatzailaren prestazioen etetea berrikeria dezala, ez baitago arrazoirik eteteko. Bestalde, haien iraupena ere berrikeria dezala, eta ordaindu gabeko kopuruak ordain ditzala.

